

UPV, UEUren aurka?

UDA hurbil dago. Eta Euskal Herriko Unibertsitatearen mundutxoa txikiegia da zer egosten ari den barrukook ikus ez dezagun. Hemendik bi hilabetetara Iruñean bilduko da XVII. aldiz Udako Euskal Unibertsitate delakoa; eta handik hilabetera Donostiara «Universidad de Verano del País Vasco» delakoa, bigarren aldiz hau.

Denok ezagutzen dugu elkar. Eta oso erraza da zuhaitzek basoa ikusten ez uztea. Edo, bestela esanda, arazo pertsonalek izari sakona izkutatzea. UPV-UEU binomio horren atzean, beste mailatan ere gertatzen ari den borroka latza mamitzen ari baita.

UEUren helburuak ezagunak dira: 1.- Euskara unibertsitatearen alorrean sartzea eta trebatzea, bai hizkuntza bera, bai irakasle euskaldunak prestatuz; 2.- UEUko mundutxo horretan, euskara nagusi izatea, euskal hizkuntza-legetasun hori, nolabait esateko, alor horretan bederen egiazko eginez; 3.- politika ofizialen gainetik, euskaldun unibertsitariok Nafarroan elkartu, Iruñean bertan, «Vascongadas»ko muga murriztetatik irteko gai garela adierazteko (eta nahi dugula ere nabarmen agerrerez); 4.- ikasle-irakasle harremanen estiloan bertan, Unibertsitate herrikoia eraikitzen hastea.

Ia-ia helburu berberekin ari dira lanean orain dela urte pilo bat **Elhuyar** elkarteak, bai **UZEI** deritzona; bi hauek jakina denez, Donostian kokaturik.

UPV hori zer den ere aski agerri da: Sitges-en urtero egiten den «Universidad de Verano» horren antzeko zerbait. Joan den urtean adibidez, Tesia irakurtzerakoan han gertaturik, Tierno Galván jauna zeukaten hizlari. Kataluñaño problematikatik at (at ala aurka?) eraikia, beraz; baina Sitges-ek daukan turismo-maila apaintzeko, oso egokia. (Turistentzat, noski; nahiz ez katalandar intelektualentzat). Donostiako UPV horrek, besterik erakutsiko ez

TXILLARDEGI



zaigun bitartean, helburu **turistiko** bat du: «epater le touriste».

Hots, egun hauetantxe izan diren elkarrizketen ondorioz, hau agertu da garbi: aurten ere UEU-k **eskale** ibili beharko duela Diputazioetan eta Udaletan diru-apur bat lortzeko; eta, jakina, legetasun edo instituzio-mailan izan dituen arazoak hortxe daudelarik. UEU-ren pleguko munstro vascongado-navarro-sudouestoits honek ez du bere lekua aurkitzen. Noski! UEU-rentzat ez dago status-ik, ez dago dirurik... Baina UPV-rentzat, nahiz berria izan, nahiz helburu turistikoaz gain zer eskeini dezakeen garbi agertzen ez bada ere, badaude milioiak (lehenengoak emanak daude), eta bada-goa nahi den guztia.

Jenderik ez ordea; UPV-aren espezialitatea Dinamarka, Alemania eta Suiza-ko irakasleak ekartzea baita. Eta euskal kolorea emateko (iazko

«passada» berriro gerta ez dadin), soluzioa bakarra da: UEU-ra jo, eta ohoreak eta diru mordoska galantak eskeiniz, laguntza hori lortu. Guztiz, beraz, PNV-aren lerrotik. Burgesen lelo ezaguna praktikan jarritz: «Mundu honetan dena erosten da. Arazo bakarra, beraz, dirua da». (Eta instituzio autonomikoek, guri esker, gainditua dute arazo hori).

UEU indartu beharrean, beraz, UEU-ri dirua ukatu eta jendea piskanaka kendu. Kendu ote? Ez dakigu. Baina Etxenike, Zalbide, eta beste batzu, **galdu** egin ditu UEU-k; eta besteek beren zerbitzutan jarri dituzte. Hauxe da egia latza.

Hots, azken puntuan, eta prozesu hori aurrera baldin badoa, zer gertatuko litzateke halako batez UEU-k potto egin, eta denok UPV-ra pasako bagina? Erantzuna erraza da: Unibertsitatearen mailan **dena integratua** litzatekeela. Eta ez nolana integratua: nafartarrak batetik, vascongadoak bestetik; ipartarrak Bordaleko eta Tolosako Unibertsitateen mende; denok erdara batuan, eta Konstituzio sakratuan «atado y bien atado», hark esan zuen bezala.

Baina guztiz ahanzkorra behar litzateke izan UEU-UPV arazo hori soilki ikusteko. Zer esan AEK-HABE biketaz? Nola uler daiteke, kontestutik at, «Anaitasuna» desagertu ondoren, **ARGIAK** orain, euskal astekari bakarra (eta ona, benetan) izanik, laguntza tantoka besterik ez jasotzea? Nola uler daiteke hau guztia, irakurle hori, jorkabide orokor hori bultzatzen duen aparatoa abertzaletasunean kokatzen baldin badugu? Nik, egia esan, ez dut ulertzen.

Eta arazo larria da. Ito egin nahi gaituzte. Eta ez dakit, benetan, fruiturik ematen eta emango ez duten solidaritateetan gu tematuta, gure inguru hestutzen ari diren beso liskatsuen lodiaz eta kiratsaz jabetzen ote garen.

UEU-UPV binomio horren atzean besterik dago. Besterik eta guztiz larririk, ene ustez.